



Arartekoaren ebazpena, 2011ko apirilaren 19koa. Horren bidez Orioko Udalari gomendatzen zaio burutu duen gizarte esku-hartzea ebalua dezan eta, beharrezkoa balitz, ondare erantzukizuneko prozedura ofizioz has dezan eta beharrezkoak diren neurriak abian jar ditzan pertsona batek dagozkion eskubideak erabiltzeko eta gizarte arreta egokia jasotzeko aukera izan dezan.

Aurrekariak

1. Pertsona batek Arartekora jo zuen Orioko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko jarduera zela-eta, bere egoera pertsonalera eta bere beharretara egokitzen ez zela uste baitzuen ez eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen berezko funtzioetara ere. Pertsona hori 2007an joan zen Oriora bizitzera Bizigune Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza hutsaren programaren etxebizitza esleitu ziotenean. Behar bezala tratatu ez zutela eta bere ustez haren eskubide ziren prestazioak bideratu ez zizkiotela azaltzen zuen, ondorioz, zaurkortasun handiko egoeran zegoen.

Kexagileak Oinarrizko Gizarte Zerbitzu horren esku-hartzearen inguruko kexa idazki ugari aurkeztu zituen, 2007. urteaz geroztik Udaleko Erregistroan aurkeztu zituenak, besteak beste, honako data hauetan: 2007/05/29, 2007/04/2, 2008/08/12, 2008/10/06, 2011/01/12. Idazki horietan arreta eman zion gizarte langilearen jarduera salatzen zuen.

2. Arartekoak aurreko gertakariei buruzko informazioa eskatu zion Orioko Udalari, zehazki, honakoa eskatu zion:
 - a) Udalak (...) (r)entzat izapidetu dituen prestazio eskaeren kopia.
 - b) (...) (e)k Orioko gizarte zerbitzuen jardunagatik aurkeztu dituen kexei erantzuteko helburuarekin udalak egin dituen jardunak.
 - c) Udalak aipatutako gertakariak ikertzeko espedienteren bat hasi duen jakiteko informazioa.
 - d) (...) (r) i dagokion gizarte txostena.





3. Udalak 2007ko martxoaren 19tik 2011ko martxoaren 2ra bitartean Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren bidez bideratu ziren gizarte esku-hartzeen jarduerak biltzen zituen gizarte txostena bidali zuen. Gainera, bere espediente pertsonalari zegozkion hainbat agiri erantsi zituen (mediku ziurtagiriak, etxebizitza alokairuaren kontratua, udalean aurkeztutako idazkiak eta 2011ko otsailaren 18ko diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren eskaera).

Txostenak kronologikoki biltzen ditu bideratutako jarduerak, bai Oinarrizko Gizarte Zerbitzuarekin izandakoak, bai beste erakunde eta agente publiko eta sozialekin egindakoak. Gainera, pertsona horrek oinarrizko errentaren (une honetan diru-sarrerak bermatzeko errenta) prestazioaren eskaerari eta gizarte larrialdietarako laguntzen eskaerari dagozkien demanda biltzen du. Txostenean erreklamatzailleak Udal Erregistroan aurkeztutako kexak eta eskariak eta beste udal bulegoekin izandako elkarrizketak aipatzen dira.

Orioko Udalak azaldu du 2011ko otsailaren 18an kexagilearen Gipuzkoako Foru Aldundiko diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren eskaera aurkeztu duela.

Gizarte txostenak biltzen dituen gizarte gaien artean honakoak azpimarratuko genituzke:

- Orioko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren lehen elkarrizketa 2007ko martxoaren 19an izan zen. Egun horretatik 2011ko martxoaren 2ra arte 16 elkarrizketa egon ziren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan.
- Pertsona horrek Gureak enpresako lantegi batean egin du lan 2009ko irailetik 2010eko irailera. % 39ko ezgaitasun maila dauka.
- Kexagilearen egoera ezagutzera bideratutako jarduera ugari daude, 56 inguru agente eta zerbitzu publiko ezberdinekin. Jarduera horiek beste Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan egindako gizarte esku-hartzean eragina dute (lehen beste herri batean bizi zen), Orion bizi aurretik Gipuzkoako Foru Aldundiarekin egindako jardueretan, hala nola, familiako medikuarekin izandako esku-hartzeak, buru osasuneko zentroarekin izandakoak, Urola-Kosta Mankomunitatearekin, enpresak sortzeko atalarekin, etxebizitza





publikoko zerbitzuarekin, Etxebide, Bizigune programa, eta Donostiako Caritasekin izandakoak.

- Txostenak beste zerbitzu publikoetako jarrera pertsonala aipatzen du, hala nola, Orioko kultura etxea.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak ondorioztatzen du kasu honen inguruan antzematen diren pertsona eta erakunde aniztasuna kontuan hartzea garrantzitsua dela. *“Todas inciden y sin embargo, seguramente por la complejidad del asunto y la descoordinación (cada uno actúa a su aire o como puede), es manifiesta la incapacidad de aunar fuerzas y marcar unos objetivos comunes claros que puedan tratar de encauzar adecuadamente el problema que supone (...)”*.

4. Gipuzkoako Foru Aldundiak diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa eskaini dio erreklamatzailari 2011ko martxoan.

Hori guztia ikusita, jasotako gogoetetan eta informazioan esandakoa aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu honako gogoeta hauek helaraztea:

Gogoetak

1. Udalen eskumenetako bat lehen arretako zerbitzuak eskaintzea da, hau da, informatzea, baloratzea, diagnostikatzea eta orientatzea, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22. eta 42. artikulua.

Kexagileak Orioko Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo zuen lanik gabe zegoelako eta laguntza ekonomikoa behar zuelako haren oinarrizko beharrak asetzeko. Bere lehenengo bisita 2007ko martxoaren 19an izan zuen.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eskumena da gizarte zerbitzuen alorrean jorratu beharreko gizarte beharrak antzematea eta horiei arreta ematea, euren eragineko geografia eremuan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren bulego





ezberdinetarako sarrera koordinatuz eta kudeatuz, 12/2008 Legeko 29. artikulua.

Bidalitako informazioan eta gizarte txostenean adierazitakoaren arabera, pertsona horrek behar bezalako arreta jasotzen zuen osasun zerbitzuetan eta etxebizitza publikoko zerbitzuan Orioko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak esku hartu aurretik.

2. Udalen eskumena da, halaber, diru-sarrerak bermatzeko errentei zein etxebizitzarako prestazio osagarriari dagozkien espedienteen eskaerak jasotzea eta bideratzea, edozein motatakoak direla ere, ebazpenaren proposamena barne. Halaber, gizarte larrialdietarako laguntzei dagozkien eskaerak jasotzeko, bideratzeko, onartzeko eta ukatzeko eskumena dute eta, hala badagokio, laguntza horiei dagozkien ordainketak egiteko, gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 88. artikulua (18/2008 Legea).

Diru-sarrerak bermatzeko errenten espedienteen izapideak eskatzailea erroldatuta dagoen eta benetako bizilekua duen udalerriko udalak egingo du, diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuko 30. artikulua edota gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerak arautzen dituen apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuko 26. eta 28. artikulua. Udalak, pertsonak eskaera aurkeztu duenetik gehienez ere 40 eguneko epean, espedientea eta ebazpenerako proposamen txostena aurkeztu beharko dio Foru Aldundiari.

Aurrekoa kontuan hartuta, kasu honetan Orioko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak ez zion diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaera bildu -eta ez zuen izapidetu eta aldundira bidali- 2011ko otsailaren 18ra arte. Hala ere, lehenengo elkarrizketa 2007ko martxoaren 19an egin zen, eta orduantxe adierazi zuen kexagileak eskaera aurkezteko nahia.

Gizarte-larrialdietarako laguntzei dagokienez, interesdunek eskaera bizi diren herriko udalera zuzendu beharko dute, une horretan indarrean dagoen legedi orokorrean zehazturiko bideetako edozein erabiliz, gizarte-larrialdietarako laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 dekretuko 19. artikulua (une honetan urtarrilaren 18ko 4/2011 dekretuko 15. artikulua). Udalak ez dio





erantzunik eman behin baino gehiagotan 2007.urteko maiatzaz geroztik ahoz zein idatziz egindako gizarte-larrialdietarako laguntzen eskaerari.

3. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eskubide subjektiboa da prestazioa eskuratzeko (kasu bakoitzean aplikatzekoa zaien modalitatean prestazioa eskuratzeko) berariaz araututako baldintzak betetzen dituzten pertsona guztientzat, (147/2010 Dekretuko 3.1. artikulua).

Kexagileak hainbatetan eskatu du bere eskubide diren laguntza ekonomikoak izapidetu diezazkioten eta zenbait idazki aurkeztu ditu oinarrizko gizarte zerbitzuaren jarrera salatzeko eta gizarte langilea alda ziezaioten eskatzeko. Orioko Udalak ez die idatzizko erantzunik eman eskaerei, prestazioak ez izapidetzeko izan dituen arrazoiak ahoz azaldu dizkio kexagileari. Era berean, ez zaio eskatu eskaera konpon dezan aginduzko agiriak gaineratuta. Hori ez dator bat administrazioak erabakitze duen obligazioarekin, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 42. artikulua.

Gizarte arretak konpainia pertsonala dakar berekin elkarrizketa edo itzultzea bitarteko gisa duena, hau da, ahozko komunikazioan oinarritzen da oinarrizkoa baita ezartzen den harreman pertsonala. Hala eta guztiz ere, zenbait jarduera idatziz jakinarazi behar dira, sinesgarriro ager daitezen, hala nola, eskaerak ez onartzeari edo aurkeztutako eskaerak zuzentzeko eskakizunari dagozkionak, 147/2010 Dekretuko 30.3 artikulua: *“Eskaeran errakuntzak edo kontraesanak aurkitzen badira, edo eskaera osatu gabe baldin badago edo ez baditu dekretu honen 28. eta 29. artikuluetako baldintzak betetzen, udalak espedientea osatzeko edo konpontzeko beharrezkotzat jotzen duen beste edozein datu, agiri edo txosten eskatuko dio eskatzaileari edo beste edozein erakunde edo entitate publiko edo pribatuari”* (aurretik, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera arautzen duen apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuko 26. artikulua).

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko gizarte txostenak ez du araudiak (gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea edo aurrekoa, gizarte bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea, baita garapenari buruzkoa ere) prestazio ekonomikoko onuradun izateko ezartzen dituen baldintzetan eragiten duen inolako erreferentziarik, bizikidetzaren unitate ekonomiko independentea ezarri aurretiko urtebeteko epearen erreferentzia izan ezik, aplikatzekoa izatekotan, 2008an bete zena. Izan ere, Gipuzkoako Foru





Aldundiak diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa eskaini dio 2011ko martxoan, hau da, eskatu zuenetik (2011ko otsailaren 18a) bi hilabete baino gutxiago igaro aurretik, baldintza berean egonda. Espedientean bildutako informazioaren arabera, ez dirudi pertsona horrek une honetan duen egoera eta bere baldintzak eskaera eskatu zuenetik aldatu direnik. Datu hori baieztatzekotan, pertsona horrek prestazioa jasotzeari utzi izan zion, horretarako eskubidea izan arren.

4. Txostenean bildutakoaren arabera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak 16 elkarrizketa eta 56 jarduera baino gehiago bideratu ditu pertsona horrekin. Txostena, 13 orrikoa, Arartekoari bidali diote. Gizarte txostenean egindako eta bildutako gizarte esku-hartze hori Orioko Udalak ebaluatu behar du Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei esleitutako funtzioetara eta esku-hartze prozedurara egokitzen den baloratze aldera.

Arartekoak ezin du egindako gizarte esku-hartzea baloratu ezta gizarte txostenaren edukia ere. Ebaluazio hori, esan dugun moduan, udalak egin behar du. Hala eta guztiz ere, garrantzitsua da ezberdintzea, alde batetik, gizarte arreta eta esku-hartzea, eta bestetik, Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileen eskubide diren prestazioak izapidetzea, une bakoitzean indarrean dagoen araudiaren babesean, gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea. Era berean, Gizarte Zerbitzuen erabiltzaile gisako eskubideak eta oinarrizko eskubideak errespetatu behar dira, besteak beste, EKren 19. artikulua, bizileku askatasunerako eskubidea, EKren 18. artikulua, intimitatearekiko eskubidea eta EKren 14. artikulua, berdintasunarekiko eskubidea. Gainera, administrazioak legeari eta zuzenbideari men eginez jardun behar du (EKren 103.1. artikulua).

Oinarrizko errentaren (une honetan diru-sarrerak bermatzeko errenta) eskaera edo gizarte larrialdietarako laguntzen eskaera izapidetzen izandako atzerapena - azken hori oraindik ere izapidetu gabe dagoelarik- ez dago justifikatuta legean ezarritako baldintzak bete ez izanagatik edo erabiltzaileak aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu ez izanagatik, eta ez dugu inolako pisuzko arrazoirik horretarako. Hori dela-eta, udalak azkenean diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaera izapidetu duen arren, zenbait elementuk egindako esku-hartzearen ebaluazioa eskatzen dute, hala nola: izapide horietan izandako atzerapena, oraindik ere izapidetu gabe dauden beste eskaera batzuk edo burutu diren jarduera batzuk egotea (gizarte txostenean bilduta daudenak).





Ebaluazio honen bidez, pertsona horren gizarte arreta hobetzeko neurri egokiak abian jarri nahi ditugu, eta administrazioaren funtzionamenduaren ondorioz bere eskubideetan zauri bat pairatu izanagatik erantzukizunean erori den baloratzea, izan ere, hala balitz, pairatutako kalteengatik indemnizatzea bidezkoa litzateke, 30/1992 Legearen 139. artikulua: *“Ezinbesteko kasuetan izan ezik, herri-administrazioek ordaindu egin behar dizkiete herritarrei beren ondasun eta eskubideetan eragindako kalteak, beti ere, izandako kaltea zerbitzu publikoen jarduera on edo txarraren ondorioz sortu bada”*.

Ebaluazio honetan onartutako eskubideak eta administrazio prozeduraren inguruko antolamenduko ezarpenak kontuan hartu behar dira, bai eta gizarte esku-hartzean eragina duten beste arlo batzuk ere, hala nola, egindako gizarte lanak garatu beharreko metodologia, deontologia, funtzioak eta helburua bete ote dituen.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11. b) artikuluan xedatutakoaren babesean:

9/2011 GOMENDIOA, apirilaren 19koa, Orioko Udalari egina

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak pertsona horrekin izandako gizarte esku-hartzea ebalua dezan, prestazio ekonomikoak izapidetzen gertatu den atzerapenaren arrazoiak ezagutzeko, pertsona horren eskubideak errespetatu diren baloratzeko eta egindako gizarte esku-hartzea gizarte ekintza zuzentzen duten printzipioetara doitu den jakiteko.

Administrazioaren funtzionamenduak pertsona horri kalteak eragin dizkiola ondorioztatzen bada, ondare erantzukizuneko prozedura ofizioz has dadin kalte hori indemnizatzen.

Pertsona horrek hari dagozkion eskubideak balia ditzan eta gizarte arrera egokia izan dezan beharrezkoak diren neurriak abian jar daitezten.

